

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



David Segurado, entziklopedia bat bizipen

Hogei urte dira Urrietatik irten zenetik; geroztik bizitza zirrargarria darama Cusco eta Amazonia artean / 2-3

Ekitaldiz beteriko asteburua Xoxokan

Desafioa, giza-proba, bertso saioa, erromeria eta haur ikuskizunak iragarrita daude. Igande arratsaldean, usadiozko sagardo dastaketa Xoxokako plazan / 8-9



**Aitor Mendiluze,
Sustrai Colina,
Alaia Martin, Amets
Arzallus eta Jon Maia
Basteron bertsoan** / 14

**Ormendi kirolak
dendako Izaskun
Mendizabali
elkarrizketa, iraileko
kanpainaren harira** / 5

**Mikel
Agirregomezkortari
elkarrizketa, Saroben
antzerki tailerra
abiatzear denean** / 10



**Carrere: "2019ko Udal
hauteskundeetara
alkategai bezala ez
aurkezteko erabakia
hartu dut"** / 6



Urriaren 15, 16, 17 eta 18
ATE IREKIAK jardunaldiak izango dira.

Izen ematea:
Ludotekan, urriaren 15etik 25era.

Matrikula:
orria bete eta 10 euro ordaindu.

Urriatik apirilera zabalik, astelehenetik ostegunera,
17:00etatik 19:00etara, Arantzubiko eskola zaharrean.



Andoni Urbistondo URNIETA

David Segurado Iriondo, 43 urte. “Urnietarra, jaiotzez eta bihotzez”. Horrela aurkezten da, ezagutzen ez duenarentzat. 1999ko urriaren 5ean ekin zion abenturan murgilduta jarraitzen du bete-betean. Perun. Cusco-Lima-Amazonia triangelu magikoan, hara eta hona. Jario latza du, eta kontatzen dituen apurrekin ondoko guztiak aho bete hortz mantentzeko gai da. Gutako ia inork egin edo ezagutu ez dituenak egin eta ezagutu baititu hogei urtean. Adibide simple batzuk. Zuetako nork bizi izan du estatu kolpe bat? Nor gurtzatu da pantera beltz batekin aurrez aurre? Edo zuetako nor izan da dron batekin 100.000 hektareako oihan zati bat ikuskatzeko arduradun (100.000 futbol zelai)? Liburu bat idazteko adina oroitzapen omen ditu. Bi orritan hauek botatu ditu. Murgildu abenturan.

“Mikel Martiarena eta Jon Arruarte lagunekin eskalatzen hasi nintzenez aldatu zen dena. Txetxu Letek ere eragina izan zuen, Xauxar tabernan eskaintzen zituen mendiko argazkiekin-eta. Behin ikasketak bukatuta (zurgintza eta altzari diseinua ikasi nuen) garbi neukan mundua ezagutu nahi nuela, etxetik hanka egin. Oso gaztetatik nuen grina hori”. 1999ko urriaren 5ean hegazkina hartu zuen Ekuadorrerantz, Iñigo Eguskiza Yús lagunarekin. “Joaneko hegazkin txartela neukan, soilik, urtarrilean Txileko hiriburuan Aconcagua mendira gindoazen taldearekin elkartzeko”. Hasiera batean, Aconcaguako espedizioa bukatu ostean etxera bueltatzea zuen asmoa.

Txilera bidean, Ekuadorrerara bueltatu behar izan zuen, mendiko materiala han utzi baitzuen. Herri hartara iritsi zenean, Estatu Kolpea zegoen. “Sartu, sartu nintzen, baina egun batzuetan ezin izan nuen atera”. Gero autobusez Limara joan zen, eta handik Arica eta Santiagora (Txileko hiriak, biak). “Bankuko txartelarekin arazoren bat eduki nuen, eta Santiagora iritsi nintzenez lau dolar nituen poltsikoan. 2000 urtean arazo larria zen. Ez da gaur egun bezala, arazoren bat baduzu, dei bat egin eta berehala konpontzen dena. Han egon nintzen, lagunak iritsi zain, miseria apur bat pasatzen”.



David Segurado Iriondo urnietarra egun hauetan sorterrian dago, baina laster itzuliko da Peru aldera. AIURRI

David Segurado urnietarra, entziklopedia bat bizipen

Familia eta lagunak bisitatzen izan da David Segurado, Peru aldean ia bi hamarkada daramatzan urnietarra. Amazonas oihana ezagutu nahi zuen, gaztetan, eta haren atzaparretan jausi ostean, han egin du bizitza

Ondo gogoan du Santiagoko aireportura joan zen lehen egunean, azaldu behar zuen laguna ez zela azaldu, edo ez zuela bilatu, eta sos arazo berarekin bueltatu behar izan zuen hiri-burura. Hotel guztietan dirua aldeztetik eskatzen omen zioten, “eta hor aritu nintzen, nola edo hala irauten: batzuetan Brasilgo familia bati esker, hotelean lana egiten janariaren truke... bidaiatzen denbora egiten baduzu, irauten ikasten duzu, ezinbestean. Gauzez bidaiatu, hotelak aurrezteko, eta antzeko kontuak”.

Aconcagatik berriro Cuscora

Aconcagua menditik jaitzita, lagun guztiak etxera bueltatu ziren, baina David Cuscora bueltatu zen, ez etxera. “Lagunak egin nituen han, eta hainbat proiekturi buruz hitz eginda geunden, mendi gidari izateko eta beste. Cuscotik Amazonas oihanera joan nintzen lehen aldiz. Shintuya herrira, Madre de Dios eskualdean –Harakmbut etniako jendea bizi da han–, terma batzuetara, eta irudi hark markatu egin ninduen betirako: begetazio sakona, ur termalak, pinpilinpauxak hegan nire inguruan, eta guzki errainua aurpegian...”

Cuscora bueltatu eta berriro dirua bukatu zitzaion. Orduan erabaki bat hartu behar izan zuen: “edo etxera bueltatu, edo han geratu. Baina hain gustura nengoen han...”. Eta geratu egin zen. Oihanean aterpe bat eraikitzeke enkargua hartu zuen lau hilabetez. Hasiera batean lan tresnak, langileak eta beste izan behar zituen, “baina ez zen halakorik egon, eta arroza eta kanpin denda bat bakarrik zeuden, tokira iritsi nintzenez”. Erreka ertzean egurra uzten zioten noizean behin, eta egun batzuetan bertakoa zen gizon batekin egon zen: “Romeo Corisepa. Askok irakatsi zidan hark, ze ni Urnietatik nindoan, ez nuen inguru hura ezagutzen batere, eta oihanak baditu arriskua sortzen duten hainbat egoera. Han diziplinaz, neure buruaz, inguruaz ikasi nuen...”. Zibilizazioa “bueno, irrati estazio bat”, bi ordura zuen, oinez, eta Madre de Dios erreka gurutzatu behar zuen, bai edo bai: “Zin dagit erreka oso hazita etortzen zela sarri. Oinetan sekulako babak atera zitzaizkidan hezetasunaren eraginez”.

Bere menua monotono samarra omen zen: arroza, baratxuriak, oreganoa eta noizean behin arrantzaten zuen arrainen bat. Trukean, inoiz ahaztuko ez dituen egoerak bizi izan zituen: “jaguar melaniko bat ikusi nuen, aurrez aurre. Jaguar beltza! Peru osoan halakorik ikusi duen gizaki bakarretakoa naiz. Zorionez jan berria zen...”, dio barrez. Egun batzuetan jolasean aritu zen Jaguar melanikoa edo puma beltza Davidekin: “Gauetan kanpin dendatik gertu zegoela sumatzen nuen, arnasketagatik. Linterna batekin argia egiten nion, eta burua ezkututzen zuen sasi artean. Jakina, egunsentia noiz iritsi zain ematen nuen gaua, beldurtuta...”. Oihanak arrisku asko dituela dio: “sugegorri pozoitsuak (jergon espeziekoak) koska egiten badizu, heriotza ziurra da, antidotorik ez baldin baduzu, eta nik ez neukan. Inurri marabunta bat ager daiteke, bidean topatzen duten guztia janez...”.

Urnieta, Madril eta Lima

Cuscora itzuli zen berriro, salbu, eta hainbat lan egin zituen: kafetegi-bidaia agentzi bateko altxariak eta beste muntatu, bidaiak antolatu oihanera... 2003ko abuztuan Urnietara bueltatu zen. Lau urte pasa ziren, joan zenetik. Arrain lonjan, muntaketa lanetan, eta bertikaletan aritu zen lanean, eta ondo ordaintzen zuten, diru pixka bat bildu zuen: “Nahikoa, berriro Perura bueltatzeko. Urnieta asko maite dut, gertu dauden mendi eta paisaiak. Baina dena dago araututa, konfort-a erabatekoa da. Ohikoa ez den gauza bat egitea zaila da, eta Perun, aldiz, amets bat baldin baduzu, egin dezakezu. Ez dut esaten egitea, saiatzeko baizik. Eta aukera horrek eraman ninduen berriro Perura”. Cusco aukeratu zuen berriro, “nire bigarren bizitokia. Oihanetik gertu dago, Machu Pichu ere bertan dago...”.

Oihaneko komunitate batzuk turismo eta biologia arloan ze garapen eduki zezaketen aztertzeko hasi zen lagun batzuekin: “bertako kideekin hitz egin, ze behar zituzten, azterketa biologikoak...”. Estazio biologiko bat kudeatzen hasi zen gero. Gustuko zituen lanak, “sosak nituelako. Oihana, biologia, ikerkuntza oso gustuko ditut, eta horretara bideratu nuen nire jarduna. Lan horretan Claudia Torres,

nire egungo emaztea ezagutu nuen. Biologoa da”. Kontserbazioa, ikerkuntza arloko lana nahiko zaila da Perun, ez omen dute ondo ordaintzen. “Claudiak bere jardunean mantentzea lortu zuen, eta maisutza egiteko Madrilera joatea erabaki zuen, urte eta erdiz. Berarekin etorri nintzen, eta berak ikasten zuen bitartean, ni lanean aritu nintzen han eta hemen”. Berriro bueltatu ziren arte.

Urnieta edo Lima arteko diferentzia azaltzeko, paralelismo hau erabili du Segurado anaia gazteenak: “Urnieta 6.000 biztanleko herria da. Limak 10 milioi ditu. Ikerkuntza lanean berdin gertatzen da: errespetuz diot, Txingudi edo Amazonia ezin dira alderatu, eta horregatik bueltatu ginen”. Liman, ingurugiro aholkularitza bulego batean hasi zen lanean David. Liman zegoen bulegoa, baina lana, askotan, goi ordokian edo oihanean izaten zuen. “Denbora gehiago ematen nuen Limatik urrun, Liman bertan baino, eta gustura”. 2011-2016 bost urtekoan logistika lanetan ere aritu izan da espedizioentzat, edota proiektuak dituzten telebista ekoizleentzat (Marañon ibaiaren jaitsiera Huayhuash mendikatetik Iquitos hiriraino, Red Bull etxearentzat).

Azkenaldian Google-entzat ere jardun izan da, oihaneko urruneko hainbat komunitateetara konektibitate, internet-a eramateko estratosferatik mugitzen diren puxika aerostatikoekin lanean, Loon proiektuan. “Gure lana puxika horiek 24 orduko epean lokalizatzea da, eta oinez, ontzian, astoan... denetarik erabiltzen dugu garraio bide gisa”.

Etorkizuna, dronari lotuta

Azken urteetan dronen munduan murgildu da buru-belarri David: “Perun, dron operadore titulua lortzen duen zazpigarren pertsona naiz... Jendeak uste du dronak ikus-entzunezkoak egiteko bakarrik balio dutela, baina ni beste erabilpen batzuk dituztela erakusten saiatzen ari naiz: kontserbazioa, ikerkuntza, garapena... bitartekoak lortu, oihaneko herritarren bizi kalitatea hobea dadin: nola kudeatu basoa, legediari muzin eginez jarduten duten meatzariak nola zaindu edo atzeman...”. Linn Aerospace Peru enpresa sortu zuen ez aspaldi, eta “puntan gabilta aeronautika mailan.



Oihanean egindako egonaldietan animalia ugariarekin elkarbizitzen ikasi behar izan zuen. CLAUDIA TORRES-SAVERO

Dronak ekoizten ditugu AEBetan, baina bezeroaren eskaeren baitan aritzen gara”.

Bezero pribatu eta publikoak dituzte, “GKEak eta natura arlokoak (ACCA, ONU, BBC)”. Ez aspaldi 100.000 hektareako lur azala ikuskatu zuten, oihanean desagertzeko arriskuan dagoen landare bat aztertzeke. “Orain arte mundu osoan dron bitartez aztertu den lur eremu handiena da. Legezkoa ez den meatzari jardunaren ostean deforestazioa non ematen ari den ere azter dezakegu, eta arriskurik gabe, zerutik, ez lur azalean. Diru asko mugitzen duen negozioa da legez kanpoko meatzaritzarena, arma arriskutsuak dituzte, eta haien aurka egitea ez da erraza”.

43 urterekin, eta azken hogeiaik hara eta hona ibilita, hamar urte barru non egongo den galdetzea ere, ausart samarra da: “Ez dakit. Enpresa bat sortu dut, aurrera eraman nahi dut, eta zahartzen naizenean, lasaixeago bizi. Ez daukat plan zehatzik. Gustura bizi nahi nuke, gustuko jardunean, baina presiorik gabe. Negozioa ondo ateratzen bada, aurrera. Ateratzen ez bada, martxa. Izan Perun edo Alaskan. Ez diot mugarik jarri nahi bizitzari”.

Urnietatik lurralde haietara norbaitek joateko asmoa badu, horra heldulekua: david@linnaero.com.

Motzean

Zer geratzen da 1999an martxa egin zuen David hartatik?

Irribarrea. Ameslari izaera. Zintzoa izaten segi nire buruarekin, familia eta lagunak ez atsekabeteke. Ez naiz haiekin asko egoten, eta faltan botatzen ditut. Hutsune hori beraiekin zintzoa izanez estaltzen saiatzen naiz.

Zer da mendia zuretzat?

Hor goien dagoen zerbaitera hurbiltzen zaituena, izan Jainkoa, energia edo izpiritua.

Eta oihana?

Bizitza. Interakzioa erabatekoa da oihanean. Edo irentsi egiten zaitu, edo irautea baimendu, baina azkenean behar duzuna ematen dizu, eta hor gauza onak eta txarrak sartzen ditut, denekin ikasten baita aurrera egiten. Eskarmentua, jakintza, irakaspena... dena dauka oihanak. Azken 18 urteetan epe luzeak pasa izan ditut oihanean, eta beti erakutsi izan dit zerbait. Lehen bisitan komenigarria da ingurua ezagutzen duen norbaitek joatea, eta hortik aurrera, abentura bilatu.

Bizitza galtzeko arriskua sumatu duzu noizbait?

Bueno, bai. Nahiko gertu. Oihanean hil zaitezke. Gauzak diren bezala. Arriskuak hartu nituen. Ez behin bakarrik, lau hilabete luze oihanean ia bakarrik egon nintzen lehen epe hartan, batez ere. Gogoan dut pasadizo bat, non banbu zuhaitzez inguratuta, oihan erdian nengoan Gure Aita errezatzen, eta ez naiz oso erlijio zalea...

Liburu bat idazteko bizipen nahiko pilatu duzu. Asmorik bai?

Ez da ideia txarra.

Marian eta Amador gurasoak. Zer diozu?

Uste dut harro daudela nitaz, nahi nuena egin dudalako. Familiako txikiena nintzen, eta noski, bihurriena ere bai. Nik oso txikitatik sentitu izan dut ihes egiteko beharra. Askok maite dut familia, lagunak... baina hanka egiteko beharra oso gaztetatik sentitu izan dut.

Urnieta nola ikusi duzu?

Polita, garbia, txukuna, berdea... Festak izan dira eta jende pilo bat agurtu behar izan dut, lotsatzeraino ia-ia. Adarramendira igotzea falta zait, Urnieta behar den bezala arnasteko.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

XABIER LASA BERGARA KAZETARIA

Apustu etxea, herrian bigarrena

Andoaingo Zumea plazako etxepe batean obratan ari dira aspaditxo hasita, eta itxura denez, apustu etxea irekitzekotan dira bertan. Bigarrena izango litzateke Andoaingo herrian.

Zer pentsa azken aldiaren modan jarri eta ahoz aho dabilen apusturako modalitate berri horren inguruan? Apustu etxeak arrapalaka ari zaizkigu ezartzen hiri eta herrietan, eta baita horiekin lotura zuzena duten on-line apustuak, mugikorrez eta hatz batez eskura dauzkagunak. Komunikabide pribatu zein publikoetan etengabea da mota horietako apustutan parte hartzeraz xaxatzen gaituen publikitateak.

Kontrara, batere lasaigarriak ez diren gero eta albiste eta ikerketa gehiago ari zaizkigu iristen. Gaitz soziala aipatzen da, ludopatiaren bertsio moderno eta iluna, mugikorra eskuetan bost minututan edonor hondoratuta utz dezakeen mekanismo siniestro, familia ugari hondatzen ari dena... Harago joanda, bada 80ko hamarkadako heroinaren bertsio berria izan daitekeela uste duenik ere.

APUSTU ETXEAK ARRAPALAKA ARI ZAIZKIGU EZARTZEN HIRI ETA HERRIETAN

Azpeitian, esate batera, apustu etxea irekitzekoak direla-eta, zenbait herritar haren aurka mugitzen ari dira, hitzaldiak, sinadura bilketa eta elkarretaratzeak antolatuz.

Panorama berri horren aurrean bi aukera, behinik behin, jartzen zaizkigu begi

bistan. Lehena, beste aldera begiratzea, merkatu libreko sistema kapitalistan bizi garenez kontsumorako eta dibertsiorako gutako bakoitzak daukan askatasun pertsonala errespetatu behar dela aldarrikatzearekin batera. Azken batean, loteriak, bono-lotoak, kinielak, mila eratako zozketak..., aspalditxo bizi gara inbasio horren gerizpean. "Jokoa ez da errenta" ez da atzo goizean asmatutako esatera gure herrian.

Bigarrena, on line bidezko errealitatearen aurrean modu kolektibo batean hausnartzera gonbidatzea. Gerta daitekeelako Salkin elkarteak diogen leloarekin erabat ados egon arren -merkatalguneak herriari bizitza ematen diotela, alegia-, salbuespen mingarriak ere izatea. Herriari bizitza ematearen aurkakoa izan daitekeena, alegia.

POSTONTZIA

"Orain presoak"

SARE HERRITARRA

Irailaren 8an eman genuen prentsaurrekoan, Espainiar Gobernu berriak egungo espesxe politikaren inguruan emandako jarrera aldaketaren inguruko balorazioa egin genuen, emandako aldaketa hori pozez eta itxaropenez jaso genuela adieraziz, baina baita bide orri baten falta nabari genuela argituz ere. Euskal presoek Euskal Herriratzea nola gauzatu asmo duten jakin gabe jarraitzen du jendarteak eta urruntze politikarekin amaitzea ezinbestekoa da elkarbizitzan aurrera urrats sendoak eman ahal izateko.

Datorren urriaren 20an, arratsaldeko 16:00etatik aurrera Miramar Jauregian, giza eskubideez, elkarbizitzaz eta bakeaz mintzatzeko

ekitaldi publikoa antolatzen gabilta. Ekitaldi honetara politikagintzan, sindikalagintzan, herri ordezkari gisa instituzioetan edota giza eskubideen, bakearen eta elkarbizitzaren alorrean lanean dabiltzan pertsonak bertara gonbidatzen ari gara, baita, sufrimendua jasan behar izan duten eta jasaten duten hainbat herritar ere.

Ekitaldi honekin esparru honetan lanean jarduten duten kideak batu nahi ditugu, sinetsita baikaude, guztiok batera ekin behar diogula gai honi, guztiok batuta eraiki behar dugula elkarbizitzan eta bakean oinarritzen den jendartea. Horregatik, gaurko agerraldi hau ere probestu nahi dugu gonbidapena helarazi diegun

guzti horiei bertaratzera animatzeko dei egiteko, gizarte zibilarekin batera lan hau egitera gonbidatzeko.

Gaurko agerraldi honen helburu nagusia aurkeztu berri dugun ekitaldiaren berri ematea bazen ere, urriaren 20an bertan, arratsaldeko 17:00etan Antiguako Tuneletik abiatuko den manifestaziorako deialdia egiteko ere baliatuko dugu.

Espesxe politikaren auzia gori-gorian den honetan eta urruntze politikarekin amaitzeko oinarriak ezartzeko ireki diren aukera berrien aurrean, inoiz baino garrantzitsuagoa ikusten dugu urriaren 20an herritarrak kalera atera eta bide honetan aurrera urratsak emateko herri nahi sendo bat dagoela erakusteko.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema.
Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoaingo
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoaingo), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

GIPIZKOAKO Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA: BABESLEAK: AIURRIKO harpidedunak ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Gertutasuna da ezeren gaineretik galdu behar ez duguna"

IZASKUN MENDIZABAL ORMENDI KIROLAK

Amaia Senperena ANDOAIN
Merkatariek Andoainen irailan egin duzuen kanpainarekin pozik al zaude?

Ni eta inguruko merkataria oso gustura gaude herriaren aldetik jaso dugun erantzunarekin. Askok heriotzagatik edota erreformagatik itxi genituela pentsatu zuten, baina inguruko komertzio gehienak antzeko zeudela ikusita jendea galderak egiten hasi eta kanpainarekiko interesa piztu genuen. Kanpainak balio izan du herritarra sentsibilizatzeko, baina erakuslehoak ilun ikusteak herritarrak ez ditu komertzioetara sartzera bultzatu eta hori hil bukaerako kontuetan nabarmen nabaritu da.

Erosleen aldetik aldaketaren bat ekartzea espero al duzue?

Egunerokoan ez dut beste maila bateko mugimendurik ikusten. Egia da, guk beste mota bateko gertutasuna eskaintzen duen merkataritza eskaintzen dugula, baina



Izaskun Mendizabal, Kaleberrian dagoen Ormendi Kirolak dendakoa. AIURRI

internet bezalako merkatu handiekin lehiatzea oso zaila da. Hala ere, nire ustean, jendea konturatu de herriko komertzioetan ez kontsumitzeak ekar dezakeenaz.

Zuk konkretuki zein mezu zabaldu nahiko zenuke kanpaina honen bitartez?

Andoainen egiten dugun lanaz ohartarazi nahi dut. Gutxiago saltzeak jendea gehiago erakartzeko lan gehiago

egitera eramaten gaitu. Gure hornitzaileek ere presio erantsia sartzan digute beraien produktuak gehiago saltzen saiatzeko.

Lehen aipatu dudan moduan, herriko merkataritxi txikiok bezeroari eskaintzen diogun gertutasuna ezin daiteke multinazional handiekin konparatu. Ondoko harategira deitu eta mesedez biharko edozer gauza behar duzula eskatuz gero, harakinak bere esku dagoen gutzia egingo du hori lortzeko. Hori da galdu ezin dugun balioa. Gertutasun hori da bezeroari eskaintzen dioguna, eta hori da ezeren gaineretik mantendu eta galdu ezin duguna.

Herritarrek zer egin dezakete tokian tokiko merkataritzaren alde?

Argi dago. Herriko merkatalguneetara gerturatu eta bertan kontsumitu. Egia da ere egunerokoan asko mugitzen garela. Norbaitek kanpoan lan egiten badu, Hernanin adibidez, errazago egiten zaio lanetik atera eta Hernaniko harategi batean haragia erosi eta kotxean zuzenean etxera joatea. Azkenean inkontzienteki egiten ditugun ekintzak dira, baina guregan eragin handia dute.


HAU ERE BADUGU!

Euskaraldian izena emateko aukera zabalik



Andoainen eta Urnietan, Euskaraldiaren lantaldeak lan eta lan ari dira. Ahobizi eta Belarriprest aritzeko boluntario bila dabilta, datorren azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte Euskal Herri osoan zehar egingo den Euskaraldian parte har dezaten. Euskara ahoan darabilenak Ahobizi modura izena eman beharko du. Ulertu eta zertxobait hitz egiteko aukera duenak, bestalde, Belarriprest modura izena eman ahal izango du. Internet bidez izena emateko aukera ere badago.

Animaliak tartean diren kirol proben aurkako eta aldeko mezuak



Igande arratsaldean Facebook sarean eztabaida sortu zen Urnietako zaldi probaren harira. Aiurriko FB orrialdean zaldi probaren argazkiarekin batera, emaitza argitaratu zen. Hari segika, zaldiak herri kirol probatan ateratzearen aurkako mezuak agertzen hasi ziren. Aldekoak ez ziren mutu geratu, eta azkenerako eztabaida sortu zen animaliak tartean diren kirol proben aldeko eta aurkakoen artean.

AURRERAPENA

Erreparazioa indarkeria matxistaren biktimei

Irailaren amaieran Andoainen, eta urriaren hasieran Urnietan edota Lasarte-Orian, sexu abusuen salaketa handituz doa. Gaur gaurkoz gizarte gehien kezkatzen duen arazoetakoa da. Andoaingo Udalak datorren azaroaren 22rako egun osoko jardunaldia antolatuko du, Jaurilaritzaren lankidetzarekin. Indarkeria matxista pairatu duten biktimen erreparazioa izango da ardatz nagusia. Basteron burutuko da eta alor horretan aditu diren hainbat hizlari arituko dira. Goizean alor teknikoak landuko dituzte, eta arratsaldean kasu praktikoak.

GORA ETA BEHERA



Herrigunean zuhurtzia areagotu beharra dago

Joan zen astean furgoneta batek oinezkoa harrapatu zuen, Belabi kalean. Herrigunean zuhurtzia areagotzea ezinbestekoa da, denen aldetik. Oinezkoak zebra-bidea erabili behar du, ohitura txarrak alde batera utzita. Auto gidariak ere abiadura neurtu behar du, abiadura zertxobait igo ezkerro istripuak saihestea zailagoa izaten baita.





Maddalen Iriarte legebiltzarkidea EH Bilduk Zumea kalean zabaldu duen egoitzaren atarian. AIURRI

Bilgunea zabaldu dute

EH Bilduk egoitza zabaldu du Zumea kalean, koalizioari eta herri mailako mugimenduei zabaltzeko asmoarekin. Irekiera ekitaldian hizlari lanetan Maddalen Iriarte eta Ana Carrere aritu ziren. Alkateak agurra iragarri zuen bere adierazpenean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

2019ko Udal hauteskunderi begira jarrita daude alderdi politikoak, eta azken zortzi urte hauetan alkatetza duen EH Bilduk egoitza zabaldu du Zumea kalean. Ainara Rodriguez zinegotziak asmoak eta helburuak iragarri zituen bitartean, ekitaldian bi gonbidatu nabarmendu ziren. Batetik, bihotza Andoainen duen Maddalen Iriarte Legebiltzarreko bozeramaileetakoa eta, bestetik, hirugarren agintaldira ez dela aurkeztuko iragarri zuen Ana Carrere alkatea.

Egoitza Zumea kalean

Rodriguezen hitzetan, "eztabaidarako, elkarrizketarako eta gure poz eta kezka guztiak konpartitzeko gunea izango da. Hemen landuko ditugu Andoaingo herriari eskaini nahi dizkiongun ideiak eta proiektuak".

Ana Carrerek agurra iragarri zuen

"2019ko maiatzean ospatuko diren Udal hauteskundeetara alkategai bezala ez aurkezteko erabakia hartu dudala esan nahi dizuet. Bi agintaldi osatuko ditut alkate bezala, ohore eta plazer handi izan dena. Aitortu behar dut batzuetan ez dela erraza izan, baina zuen laguntza eta zuen babesa sentitu dut eta horregatik nire besarkada beroena jaso ezazue". Azken zortzi urtetan Andoaingo alkate izan den Ana Carrerek hitz horiekin iragarri zuen agurra. Gauzak horrela, Azpeitia eta beste hainbat herritan egin bezala, EH Bilduko alkateek egun hauetan agurra



Ana Carrere alkatea. AIURRI

iragartzeari ekin diote. Nolanahi ere, Carrerek "Udal taldeari lagunduz edo herrigintzako zereginetan" jarraituko duela iragarri zuen. Txalo artean agurtu zuten.



Maddalen Iriarte EH Bilduko legebiltzarkidea. AIURRI

Andoainen igarotako haurtzaroa gogora ekarri zuen Iriartek

Maddalen Iriarte Okiñena EH Bildu koalizioak Gasteizko Eusko Legebiltzarrean duen buruzagietakoa da. 1963an jaioa, larunbateko aurkezpen ekitaldian azaldu zuen bezala, bere haurtzaroa Andoain herriari oso lotuta dago. Egoitza berriaren irekiera ekitaldira gogotsu zetorrela adierazi zuen, eta politika orokorreko adierazpenei heldu aurretik, haurtzaroa gogoan izan zuen. Toki eta pertsona ugari aipatu zituen bere hitzalditxoan, bertan zirenek atsegin handiz entzun zutena: "Oso pozik nago Andoainen. Zuetariko batzuk jakingo duzue, gazteenek beharbada ez, baina ni erdi andoaindarra naiz. *Jexux beterinarioaren* biloba, Andoainen sortu zen maitasun istorio baten ondorena. Maitasun istorio askok bezala, oso alderdi gozoak izan dituen eta alderdi latzak ere izan zituena, baina oraindik ere irauten duen maitasun istorio baten ondorena naiz.

Kale Nagusiko hogeita hamabosgarren zenbakian bizi zen gure amona, eta ni patinete gorri batean ibiltzen nintzen *Carretera Generaletik Santa Krutzera*. Bitartean harrapatzen nituen *Ino*, *Estantokoa*, *Drogeria*, *Arratibeleneko okindegia*,... baita *Patroi*, *Esther*, *Truchuelo* eta gainerako guztiak.

San Martin elizan, Goikoplazan, egin izan dira gure familiako ezkontza eta hileta gehienak. Eta Santa Krutzen, batez ere komunioak. Esango nuke, *Agur Gurutze Santu* kantatzen ere badakidala, asmatuko nukeela, baina badaezpada ez dugu froga hori egingo.

Ezagutu ditut Ori ibaian uholde izugarriak, herri hau hainbeste aldiz suntsitu dutenak. Ezagutu dut Ori ibai marroi-marroia zenean, esnegaina bezalako apar zikin haiekin. Ezagutu ditut Leitzarango estropadak, ezagutu dut Allurralde kiroldegi ingurua irla zenekoa, eta zenbat buelta eman ote ditudan kale hauetan... *Colorín y sus muñecos* hona gertu etortzen zen, oker ez banago. Batera eta bestera, Leitzarano aldera edota Berrozpe aldera joanez, Ama Kandida nor zen jakin nuen. Urte oso zorionsu batzutan, nire inkestzientzian, tartean oso urte gogorak zirelako eta sufrimendu handia zegoelako. *Amona Mercedesen* bitartez, ezagutu nituen Rikardo Arregi eta Martin Ugalde. Gure amonak asko maite zuen Martin Ugalde, eta Arregitarrak ere bai. Pantxika Izagirre ere amonaren laguna zen, niretzako amona Pantxika zen bera, eta bere etxeko eskaileretan gora eta behera ibiltzen nintzen.

Herri honetan beste hainbat gizon eta emakumerekin batera, ederki sufritutakoa zen amona Pantxika bera ere. Beraz, honela ezagutu nuen Andoainen kalean gora eta kalean behera herri honen askatasunerako grina ere. Horregatik segitzen dugu askatasuna aldarrikatzen, ez dugulako eta nahi dugulako, merezi dugulako eta behar dugulako. Martin Ugaldek esaten zuen bezala, denon askatasunak egiten gaituelako libre".

Eraso berria salatzeneko elkarretaratzea

Urriaren 6ko goizaldean Lasarte-Orian izan zen eraso sexistaren biktima andoainarra da. Udalak adierazpen instituzionala adostu eta asteazken honetarako elkarretaratzea deitu du. 18:30ean hasita bilkura egingo dute Goikoplazan

Erredakzioa ANDOAIN

Irailaren amaierako sexu erasoaren aurkako bilkura errepikatuko da, zoritxarrez. Berriki jakin baita kasu berria izan dela. Oraingoan Lasarte-Oriako ospakizun batean murgilduta zegoen andoaindar baten kasua. Gertaera larriaren aurrean Udal adierazpena adostu dute Andoainen, gertaera salatu eta biktimari elkartasuna adierazteko.

Udal adierazpena eta bilkurarako deialdia

• "Irmoki salatu eta arbuia nahi dugu emakumeen aurkako eraso sexista berria.

- Gure elkartasun eta babes osoa helarazi nahi diogu erasoaren biktima izan den emakume gazteari, baita ere bere inguru hurbilari ere. Andoaingo Udalak bere zerbitzu eta bitartekoak bere esku jarri ditu.
- Udalak kasuaren jarraipen zorrotza egingo du, eta behar den lekuan agertuko da erasoaren jasan duen pertsonaren eskubideen denfentsan.
- Irailaren 25ean bi emakume andoaindar izan ziren erasotutak eta orduan esandakoan berresten gara. Indarkeria matxista lehen mailako arazoa da. Emakumeen eguneroko

ogia. Jendarte osoaren arazo larria. Oraindik, neurri handi batean, ezkutuan mantentzen da, justifikatu eta tapatu egiten da. Ez da inola ere, ordea, esparru pribatuari dagokion arazo bat. Arazo kolektiboa da, guztiona, eta guztion ardurua da indarkeria matxistari aurre egitea, emakume eta gizonena, herritar, elkarte zein erakundeena.

• Hori dela eta, eraso salatzen, hamabost minutuko elkarretaratzea deitzen dugu asteazkenerako, urriaren 10erako, arratsaldeko 18:30etan, udaletxearen aurrean. Eraso sexistarik ez!"



2018ko urriari dagokion argazkia, Udal egutegian. ANDER MOREA

2019ko Udal egutegia edertzeko argazki lehiaketa deitu dute

Atarian edota Andoain.eus webgunean aurkez daitezke argazkiak, datorren azaroaren 5a baino lehen

Erredakzioa ANDOAIN

2019ko Udal egutegia osatzeko oinarriak argitaratu dira. Parte hartzaileek datorren azaroaren 5a bitarte lehiaketan izena emateko aukera izango dute. Kultura batzordeak lehiaketaren oinarriak argitaratu ditu. Partai-

de bakoitzak gehienez ere bost argazki aurkeztu ahal izango ditu. Hamabi saridun izango dira, urtearen hilabete bakoitzeko bana, eta argazkia argitaratzeaz gain ehun euroko saria jasoko dute. Argazkiak herriari lotutakoa izan behar du.

Zer esango zenioke etorkizuneko zure ni-ari?

FutureNi.eus

Nola irudikatzen duzu zeure burua 30 edo 40 urte barru? Zer espero duzu? Nolakoa izango da zure bizi kalitatea? Adinberri da gaurko zein biharko erantzuna, adinekoen **arreta integralerako eredu berritzale bat** hedatzeko.

Gehiago biziko gara. Bizi gaitezen hobeto.

ADINBERRI
DESARROLU ZAHARRERAKO
ESTRATEGIA

Gipuzkoako Foru Ahardia
Diputazioaren Buzia
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA
ERAIKIZ



Trikiti doinuekin euriaren soinu hotsak gainditu zituzten. AIURRI

Sagardo dastaketa Kontzejupean



Gazte koadrilak Euskaraldian izena eman zuen, igande arratsaldean. AIURRI



Ikasle gazteek parte-hartze zuzena izan zuten, ikasbidaia helburu. AIURRI

Arrosarioko amaren ospakizuna euripean

Aterkipean ez zegoena babes bila aritu zen Urnietan, igande arratsaldean. Euria gogotik egin zuen egun osoan zehar, eta hala ere herri kirol erakustaldia eta sagardo dastaketa bere horretan egin ziren



Astigarragako Emarri taldeak erakustaldia eskaini zuen Urnietako probalekuan. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Astigarragako Emarri taldeko neskek 550 kiloko harriari tiraka erakustaldi bikaina eskaini zuten. 15 minututan 33 plaza, 3 zinta eta metro bat osatu zituzten. Ondoren, Andoni Mendizabalen zaldiaren txanda izan zen. 9 urte eta 580 kilo ditu zaldiak, eta 1.000 kiloko harriarekin 68 plaza burutu zituen 20 minututan.

Tartean, indarrak hartzeko, txekor jate solidarioa eta sagardo dastaketa izan ziren. Toki berean, Euskaraldian izena emateko aukera ere egon zen.



Herri kirol erakustaldiak, ohi bezala, zaletu asko erakartzen ditu. AIURRI

Urnietako jaiak Aiurri.eus webgunean:

Protagonistak,
argazkiak,
bideoak...



Arzallus eta Irazu kantari jaien hasierako bazkarian

Bertsoa ezinbesteko osagaia da Xoxokako jaietan. Astelehenean Jexux Mari Irazu eta Amets Arzallus bertso bazkarian kantari aritu ziren, eta ostiral gaueko bertso afarian Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso gisa berean arituko dira

Xabier Lasa URNIETA

Xoxokako jaien hasieran ohikoa izaten da bertso bazkaria, eta baita kantuan arituko den bikotea ere. Salbuespenak salbuespen, urtero kantuan aritzeko prest agertu ohi dira Amets Arzallus eta Jexux Mari Irazu bertsolariak. Askoren artean, hona ostiraleko desafioaren inguruan Adarra jatetxeko bazkalostean bota zituzten hainbat bertso:

Amets Arzallus:

Xoxoka izango da jokoen tenplua, nork dauka apustuen azken sekretua? Telleriatar hoiek a ze talentua! Gaur egin dute azken entrenamendua.

Jexux Mari Irazu:

Haseran biak zeuden sendo eta fuerte, deskantsu ta gosari ederraren truke. Azkenean bajatu dirala nik uste, hor aina estropozu egiten badute.

Amets Arzallus:

Baina triatloia da jarria aukeran. Lenik harrijasotzen nahiz lasterka hegan ta gaur bi egin ditu entrenatze eran, oain atsalde osoan jardungo da segan.

Jexux Mari Irazu:

Oain atsalde osoan nolako indarrak, apustuak eragin dituen beharrak. Baina ez dira zailak, ez dira malkarrak, lehortearen ondoren moztea belarrak.

Amets Arzallus:

Egia esan horko belar eta lili, nahiz ta pasako ziren hamaika famili, sega eskutan ez det inoiz erabili.



Irazu eta Arzallusen hainbat bertso aiurri.eus gunean ikusgai daude. AIURRI

Zuk esplikatu zazu, ni enaiz ibili.

Jexux Mari Irazu:

Makurtuta ta ebaki sekreturik gabe, gehio badakitenak inguruan badaude. Harriari helduta gero korrika dale! Nik apustua egiten det Gabirondon alde.

Amets Arzallus:

Nahiz detaile haundirik enezaken konta, nola jada botata daukaten erronka. Zuk Gabirondon alde, erdi auzoko-ta. Nik apustu errexa det, beti zure kontra.

Jexux Mari Irazu:

Nei kontra egitea nahi dezu pentsatu, eta saltsa pixka bat zaigunez tokatu. Baina diru konturik ez dezu aitatu. Ai, gutxienez, Amets, kafe bat jokatu.

Amets Arzallus:

Nik esango dizkizut hartuz hiru pausu, harriarekin Telleriak zenbat amenazu. Ta segan Gabirondo, hor baietz indartsu Korrika ze ingo duten zeorrek esazu.

Jexux Mari Irazu:

Korrika, ba, al da ezta lan erraza, harria eta gero justu euren kasa. Segan azken arnasa ez al da demasa? Zuk errazena ein dezu dena neri pasa.

Amets Arzallus:

Ni kalekumea naiz, nahiz badedan grina, beti hondartza izan da Ametsen jardina. Nik bi esan dizkizut ta ze buruko mina. Bestea zeuk esan, zeu zera dakina.

Jexux Mari Irazu:

Norekin apustu ona hori da problema, gauza guztitaz asko jakin behar duena. Jendez beteko zaigu ingurua dena. Hori da egingo duten gauzarik onena.

Bertsoak aiurri.eus gunean

Jaien hasierako bertso bazkariko hainbat bertso ikusgai daude Aiurri.eus webgunean, eta baita Aiurrik Youtuben duen kanalean ere.

Xoxokako jaien jarraipena Aiurri.eus webgunean egin ahal izango da, hurrengo egunetan.



Gazteen arteko giza proba ostiral arratsaldean izango da. AIURRI

URRIAK 12

OSTIRALA

12:00 Desafioa: 50 jasoaldi 100 kiloko zilindroari, 6 km korrika eta segan 700 m2 txanda librean. Gabirondo Irazustabarrena // Beñat eta Urtzi Telleria.

17:00 Xoxokako II. Giza proba: gazteak elkarren aurka.

20:30 Bertso afaria plazan: Iguaran eta Lizaso.

01:00 Erromeria goizaldera arte: Emengattun.

URRIAK 13

LARUNBATA

11:00 Hamaiketako eta bertso saioa Xoxokako eskolan.

11:00 Puzgarriak haurrentzat.

16:00 Mus txapelketa azkarra.

16:00 Puzgarriak haurrentzat.

17:00 Gorriti show. Jarraian txokolate jana.

20:30 Betizu jatea Xoxokako plazan. Txartelak salgai: Adarra, Zelai eta Guria. Ondoren, "Bakean dagoenari bakean utzi" bakarrizketa saioa.

01:00 Gaupasa: Gabenara.

03:00 DJ Altzibar Xoxokako eskolan, goizalderarte.

URRIAK 14

IGANDEA

12:30 Meza. Egaperen saioa.

17:30 Herri kirol lehiaketa auzoko gazteen artean.

18:00 Sagardo dastaketa: Eula, Elorrabi, Elutxeta, Setien, Oianume, Otsua-Enea.

20:30 Jaien amaiera.



Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso bertsoan arituko dira. AIURRI



Mikel Agirregomezkortak zuzenduko du Urnietako antzerki tailerra aurtengoan ere. AIURRI

Antzerki tailerra abiatzeko prest

Urriaren 19an jarriko da Urnietako antzerki tailerra martxan. Izena emateko epea luzatu egin dute, eta 18 urtetik gorako gizon-emakumeek eman dezakete izena. Ostiralero bilduko dira Saroben, 18:30etik 20:30era

Olatz Lasa URNIETA

Irakasle lanetan Andoni Agirregomezkorta urnietarra jardungo da, eta antzerkiaren prozesu osoa nolakoa den ikasiko dute tailerrean izena ematera animatzen direnek.

Antzerki obra bat sortzeko prozesua erakutsiko duzu hasieratik amaierara.

Hori da. Ez da beharrezkoa antzerkiaren ezagutza izatea. Aurtengoan bi fase edukiko ditu antzerki tailerrak.

Lehen fasean, aukeratuko dugun testua hartu eta ikasturtean zehar lantzen joango gara. Taldea guztiz osatzen denean aukeratuko dut testua. Bigarrenean, muntaiari emango diogu lehen-tasuna, eta azkeneko asteak

eszenatokia prestatzeko erabiliko ditugu. Bi fase horiekin hasi aurretik, talde dinamikak egingo ditugu, ariketak nahiz jolas dramatikoak, guztiak elkar ezagutzen joan gaitzen.

Antzerkia pasioz bizi duzula esan daiteke?

Bai, niretzat antzerkia pasioa da; antzerkia behar dut nire bizitzan. Ez naiz aktore profesionala, afizio gisa hartu dut. Garapen pertsonalarekin zerikusia handia du antzerkiak. Zentzu horretan, antzerkia aurkikuntza izan da niretzat. Zure burua garatzeko balio du, baita zure barruan dagoena aurkitzeko ere. Niretzako hori da garrantzitsuena antzerkian. Horrek ar bat sortzen du zure barnean.

Alde terapeutikoa ere badu antzerkiak. Egun oso modan dagoen pertsonen alde emozionala lantzeko balio du. Horregatik tailerrean izena ematera animatzen dut jendea. Asko eta asko ez dira animatzen lotsagatik edo beldurreragatik, baina probatzera gonbidatzen ditut beren alde emozional hori aurkitzeko. Antzerkiak harrapatu egiten du.

Beraz, ditugun lotsak eta beldurrak kentzeko hoberean tailerrean izena ematea da.

Guztiok sentitzen dugu beldurra edo lotsa. Antzerkiarekin emozio horiek ere lantzen dira, eta emaitzak oso positiboak dira. Ariketa ezberdinak egiten ditugu, batzuk ez dira hain errazak eta erronka da; baina erronka horiek gaindituz gero oso ondo sentitzen zara.

Esperimentua duten nahiz ez duten ikasleak daude taldean. Nolako lanketak izaten dira hasierakoak?

Gorputzarekin hasten naiz, nire ustez errazena baita hortik has-

tea. Beldurrarekin eta lotsarekin apurtzeko errazagoa da gorputza erabiltzea hasieran, eta hortik aurrera gorputzak emozioetara eta sentimenduetara eramaten zaitu. Prozesu horretan azkeneko zatia hitza edota ahotsa da.

Pegagogo batek asmatu zuen hiru Cren metafora delakoa: "Cuerpo, corazón y cerebro". Horixe da funtsean antzerkian lantzen dena: gorputza, sentimenduak eta hitza edo arrazoia. **Nola banatzen dituzu pertsonaiak?** Pertsonaien banaketa ez dakit oraindik nola egingo dugun, taldea osatzen denean hasiko gara horrekin. Lehenik, pertsonaien inguruko azterketa bat egingo dugu, ondoren pertsonaiak hartu eta gorputzeko.

Zein hizkuntzatan izango da obra?

Hizkuntzari dagokionean, orain arte jende ezberdina izan dugu taldean: euskalduna, erdaldun hutsa nahiz erdi erdaldun erdi euskalduna. Taldea osatzean erabakiko dugu zein hizkuntza erabili, beti ere taldera moldatzen den hizkuntza izan behar da. Normalean gaztelera izaten da.

Zein adin tarteko jendea animatu ohi da antzerki tailerrera?

Orain arte nahiko jende helduak hartu du parte tailerrean. Gazteagoren bat edo beste bai, baina gutxiago. Taldea ez da guztiz osatu, eta hortaz matrikula egiteko epea luzatu dugu. Urriaren 19an ostiralarekin hasiko gara klaseekin, 18:30etatik 20:30etara.

Herritarrei tailerrera animatzeko mezuren bat...

Tailerrak pintxo pote egunarekin bat egiten du. Klasea amaitu eta gero, trago batzuk hartzera joaten gara elkarrekin. Hori ere erakargarria suerta daiteke tailerrean izena emateko garaian [kar kar kar].

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Joan zen urriaren 2an gertatu zen eraso salatzen bilkura isila egin zuten. UDALA

Eraso sexista arbuizatzeko elkarretaratzea, Udalak deituta

Joan zen ostegun iluntzean, herrigunean bi egun lehenago gertatu zen eraso gaitzetsi zuten

Erredakzioa URNIETA

Udal adierazpenean biktimari babes osoa adierazi zion Udalak: "Ordezkaritza dugun alderdi politiko guztiok gure gaitzespen eta arbuiorik irmoena adierazi nahi dugu urriaren 2an Urnietan gertatutako eraso sexistaren aurrean. Erakunde bezala eta Urnietan bizi garen pertsona guztien eginbeharra da:

- Indarkeria mota guztiei, eta tokatzen zaigun kasu honetan indarkeria sexistari arbuioa adieraztea.
- Indarkeria mota horren erroetan dauden egiturak eraldatzeko beharrezkoak diren neurriak abiaraztea.
- Bereziki, biktimarekiko babesa eta elkartasuna adieraztea".

Bozeramaileen batzarrak adosturikoa:

1. Oinarri sexista duen indarkeria berekin daraman edozein

ekintzaren aurrean arbuio eta gaitzespen irmoena adieraztea.

2. Babesa, elkartasuna eta maitasuna adieraztea emakumeari, bere familiartekoei eta lagunartekoei, eta Udal honek dituen arreta baliabide eta zerbitzu guztiak euren esku jartzea.
3. Indarkeria sexistaren edozein motatako adierazpenen aurrean esku-hartzeko konpromisoa azpimarratzea, eta beraz eza-batzeko borondatea berrestea.
4. Modu berezian, eraso gertatzen ari zenaren salaketa egin zuen bizilagunari eskerrak ematea, bere jardunari esker, eraso bortitzak ondorio larriagoak ez edukitzea lortu zuelako. Testuinguru honetan, Udalak herritar guztien inplikazioa eskatzen du, "gutako edonorren jarrera aktiboa eraso bat saihesteko erabakigarria izan daitekeela jabetu gaitezen".

Kirol teknikari posturako lan-poltsa sortu dute

Izena emateko epea urriaren 15ean itxiko da. Oinarriak urnieta.eus webgunean eskura daude

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak kirol teknikariaren lan-poltsa sortzeko aukeraketa prozesua martxan jarri du. Urnieta.eus webgunean, iragarki taula atalean, oinarriak eskuragarri daude.

Igerilekuan konpontze lanak egiteko kreditu aldaketa

Iraila amaierako plenoan, Udalak 347.000 euroko kreditu aldaketa onartu zuen, datorren udari begira hainbat hobekuntza egin ahal izateko. Udalak ohar bidez adierazi duenez, "diru kantitate hori Udalaren gerakinetik atera da eta 2018ko aurrekontuaren barruan txertatu da".



Udal igerilekua. AIURRI



Andoaindik iritsita, Denda Berritik gora eskuin aldera dago aparkaleku berria. UDALA

Aparkaleku berriak zabalik jarraituko du

Erabilera handia izaten ari da, Sanmielen atarian Txoritagaingo aparkalekua ireki zutenetik

Erredakzioa URNIETA

Udalak Txoritagaingo aparkalekua herriko jaiak amaitzean itxiko zuela adierazi bazuen ere, zabalik uztea erabaki du. Egun hauetan erabilera oso handia izaten ari da. Argiztatutako sistema behin behinekoa da, farolak ipini bitartean.

Plazido Muxika

Sarbidea nabarmen hobetu da azken hilabeteotan egindako lanei esker. Bereziki, supermerkatutik plazara doan tarte horretan. Irisgarritasuna bermatuta egongo da aurrerantzean. Barandak ipinita, lan guztiak amaituta egongo dira.



Plazido Muxika plazan irisgarritasuna bermatzeko neurriak hartu dituzte. UDALA

Egunean eguneko albisteak sarean



Elkarretaratzea Urnietan



Ana Carrerek agurra iragarri zuen



Kilometroak-i laguntzeko deialdia

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



Desafio handiaren atariko kirol proba Xoxokan

Herri kirolak eta Xoxoka elkar lotuta daude. Astelehenean jaiei hasiera eman zieten, kirol proba ezberdinen erakustaldiarekin. Tartean ziren ostiraleko desafio ikusgarrian parte hartuko duten Beñat eta Urtzi Telleria anaiak

Xabier Lasa URNIETA

Herri kirolen erakustaldi polita ikusi ahal izan zen astelehenean Xoxokan, jaiei hasiera emateko. Urrietako Urtzi eta Beñat Telleria anai harri jasotzaileek eta Leitzako Jon Rekondo eta Mutrikuko Aratz Mugertza aizkolariek eskaini zuten ikuskizuna.

Bi biren aurkako lehia, Urtzi eta Jon alde batetik, Beñat eta Aratz bestetik. Aizkoran, harria jasotzen, trontzan eta korrika. Harriak jasotzeko txandan, 100 eta 138 kilotako zilindro zaharrak eta 100 kiloko kopak erabili zituzten hainbat jasoaldi egiteko. Korrika saiora nahiko parakatuta iritsi ziren bikoteak, eta plazari bikote bakoitzak 20 buelta eman ostean, gazteak, Urtzi eta Jon, irten ziren garaile segundu gutxiren aldearekin.

Ostiraleko desafioa girotzeko proposa

Jakina, asteleheneko kirol saioan ez zen antzeman apustu edo lehia ofizialetan erakusten den grina, baina bertaratu ziren herri kirol zaletuek denborapasa atseginez gozatzeko aukera eduki zuten.



Beñat Telleria. AIURRI



Urtzi Telleria. AIURRI

Goiz-partea espeziala izan zen, ostiralerako iragarritako dagoen desafioa girotzeko. Nahikoa zabaldu baita urriaren 12rako Xoxokako plazan antolatuta duten herri kirol proba.

Eguerdiko 12:00tan hasita, proba ezberdinak burutzeko elkarren lehiak arituko dira Julen Gabirondo eta Suhari Irazustabarrena alde batetik, eta Beñat eta Urtzi Telleria anaiak bestetik.

Burutu beharreko lanak hauek izango dira: 50 jasoaldi 100 kiloko zilindro zaharrari (25 kirolari bakoitzak), 6 kilometro korrika eta 700 metro karratuko lursailan segan, txanda librean.

Bi segalari eta bi aizkolariek elkarren aurka arituko direnez, ez dago faborito argirik. Ikusmina, nolahi ere, handia izango da. Eguraldiaren laguntzarekin, kirol proba bikaina izatea espero da.



Trontzan ere aritu ziren. AIURRI



Jon Rekondo. AIURRI



Aratz Mugertza. AIURRI



Urrietako jubenil mailako taldea. AIURRI

Lautik lau garaipen lortu ditu jubenil mailako taldeak

FUTBOLA Urrietako taldeak lau partidatan 12 puntu, aldeko 15 gol eta aurkako 7 lortu ditu

Erredakzioa URNIETA

Urte asko ondoren, urnietarrek denboraldi hasieran Ricard memoriale irabazi zuten. Badirudi denboraldia hastear zenean jokatutako partida hark ondorengo asteetako norabidea zehaztu duela. Izan ere, ligako lehen lau partidatan Urrietako taldea da

den-dena irabazi duen bakarra. Atzetik bi puntura du Usurbil taldea. Eta horixe izango da, hain zuzen ere, asteburu honetako aurkaria.

Euskaldunak bere aldetik Lazkao hartuko du etxean. Biak puntuen premian dira, azken postuetan baitira 0 punturekin.



Mikel Iturria urnietarra Paris-Tours lasterketaren atarian.

Denboraldi amaiera Frantzian Mikel Iturriarentzat

TXIRRINDULARITZA 200 kilometroko lasterketetan parte hartu eta gero, atsedean hartzeko garaia iritsi zaio

Erredakzioa URNIETA

Urrietarrak denboraldi amaieran Frantziako txirrindularitzan klasiko diren hiru probatan parte hartu zuen, joan zen astean: Paris-Bourges, Tour de Vendee eta Paris-Tours.

Iturriak denboraldiari amaiera eman dio hiru proba horiekin. Oporraldia igarota, denboraldi berriari ekingo dio. Ea zortea aldeko duen, eta aurten erakutsitako maila 2019an baieztatze-ko aukera duen.



Buruntzaldea IKT taldeak urpoloan aritzeko aukera eskaintzen du. NPR.ORG

Urpoloa edo waterpoloia lantzeko aukera dago

IGERIKETA Buruntzaldea IKT taldeak denboraldi berrian proba egiteko deialdia luzatu du

Erredakzioa ANDOAIN

Buruntzaldea IKT taldeak waterpolo edo urpoloan trebatzeko deialdia luzatu du. Aste honetan bertan hasi dira prestaketa saioak. Elkartekoek onurak ikusten dizkiote urpoloari: "Igeriketa oinarria izanik, igeri egiten jakitea ezinbestekoa da eta, horregatik,

bere hastapena hamar urtetatik aurrera egiten da. 2018-19an urpoloan has daitezke 2008an jaio-takoak. Urpoloak oinarritzko ahalmen fisikoak garatzen laguntzen du (indarra, erresistentzia, abiadura, malgutasuna, arintasuna...)"

Info: info@buruntzaldeaikt.eus.



Nahikari Garcia.

Nahikari eta Errealak Athleticen aurkako derbiaren zain

FUTBOLA Azken asteburuan atseden izan eta gero, igande honetan Errealak Lezaman Athleticen aurka jokatuko du. Liga bikain hasi dute, lehen lau jardunalditan ez baitute partidarik galdu. Nahikari, gainera, goleatzaileen artean dago Ligan. Azken partidatan, Sevillaren aurka penaltiz sartu zuen. Sasoiko dago urnietarra.



Iker Hernandez.

Lehen minutuak Hernandezentzat Herbeherear lurretan

FUTBOLA Urnietarrak lehen minutuak jokatu ditu Herbehereetako bigarren mailan. FC Den Bosch taldea une honetan sailkapenaren erdialdean kokaturik dago. Taldearen webgunean dagoeneko urnietarra ageri da, klubeko elastikoa jantzita. Bi partidatan jokatu du, nazioartean lehen minutuak pilotuz. Ea zor-tea aldeko duen.



Jauregi, helmuga zeharkatu eta gero.

Jauregi bigarren Guara aldeko mendi lasterketan

LASTERKETAK Huescako Alquezar herritik abiatu eta, 38 kilometroko lasterketan, lasterkariak Guarako haran ikusgarria zeharkatu behar zuten. Ainhoa Jauregi Zanpatuz taldeko urnietarrak emakumezkoen bigarren postua lortu zuen.

Alquezar herritik asteburu osoan zehar lasterketa ezberdinak antolatu dituzte, 14 kilometrotik hasi eta 103 kilometrokoraino.



Jon Gaztañaga.

Gaztañagaren taldea Zipreko ligan lehen postuan dago

FUTBOLA Bost jardunaldi, eta beste hainbeste garaipen. AEL Limassol taldea, estatistika horrekin, sailkapenaren lehen postuan dago. Jon Gaztañaga andoaindarrak, gainera, hasierako hamaikakoan sartzea lortu du. Minutu guztiak jokatzen ari da, beraz, andoaindarrari nazioarteko esperientzia ondo baino hobeto doakio.



Euskaldunako senior mailako neskek. AIURRI

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK

Euskalduna-Orioko **2-1**

Mundarro-Urnieta **4-1**

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:45 Euskalduna-Roteta / Ostirala, 12

10:00 Urnieta-Hernani / Ostirala, 12

GORENGO MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Intxurre-Urnieta **4-6**

Euskalduna-Hernani **1-1**

ASTEBURUKO PARTIDAK

10:00 Urnieta-Oiartzun / Larunbata, 13

17:30 Mutriku-Euskalduna / Ostirala, 12

ERREGIONAL MAILA

EMAITZA

Usurbil-Euskalduna **1-1**

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Amaiak Bat-Euskalduna **0-1**

ASTEBURUKO PARTIDA

17:45 Anaitasuna-Euskalduna / Lar, 13

JUBENIL MAILA

EMAITZAK

Euskalduna-Usurbil **1-4**

Billabona-Urnieta **3-4**

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30 Euskalduna-Lazkao B / Ostir, 12

12:00 Usurbil-Urnieta / Ostirala, 12

KADETE MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Euskalduna-Orioko **4-3**

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30 Euskalduna-Añorga / Ostirala, 12

KADETE MAILA

EMAITZA, 7. MULTZOA

Usurbil-Urnieta A **4-1**

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00 Hernani-Urnieta A / Ostirala, 12

EMAITZA, 8. MULTZOA

Urnieta B-Añorga **1-3**

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30 Urnieta B-Amara Berri A / Lar, 13

EMAITZA, 10. MULTZOA

Danena B-Euskalduna **4-0**

ASTEBURUKO PARTIDA

10:45 Euskalduna-Ostadar B / Ostir, 12

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Goierri Gorri B-Euskalduna **3-0**

Urnieta-Usurbil **1-7**

ASTEBURUKO PARTIDAK

09:15 Euskalduna-Danena / Ostirala, 12

10:00 Goierri Gorri A-Urnieta / Lar, 13

ESKUBALDIA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Urnieta-Ormaiztegi **35-19**

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZA

Eibar-Leizaran **25-26**

SENIOR 2. MAILA

EMAITZA, 1. MULTZOA

Urnieta-Ordizia **28-21**

EMAITZA, 2. MULTZOA

Leizaran-Gure Auzune **35-12**

JUBENIL MAILA

EMAITZA, 2. MULTZOA

Anexo-Leizaran **29-41**

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZA, 1. MULTZOA

Urnieta-Tolosa **14-18**

EMAITZA, 2. MULTZOA

Leizaran-Mundarro **30-14**

KADETE MAILA

EMAITZAK

Leizaran-La Salle **31-14**

Urnieta-Egia **22-27**

EMAITZA, PARTAIDETZA TXAPEL.

Donibane-Leizaran Horia **19-17**

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA

Urnieta-Leizaran Urdina **30-26**

PARTAIDETZA TXAPELKETA

Urnieta B-Akola Het **16-23**

Tolosa-Leizaran Horia **17-16**

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 11

URNIETA Ikastaroak

Lekaion marrazketa, pintura, egur taila, joskintza eta eskulanak Lekaion. Izena emateko epea zabalik dago.
Lekaio, ordutegi bulegoa

ANDOAIN Erakusketa

Kuku kanta, hainbat artisten artean.
Ohiko ordutegia

OSTIRALA 12

URNIETA Xoxokako jaiak

12:00 Desafioa: 50 jasoaldi 100 kiloko zilindro zaharrari, 6 km korrika eta segan 700 m2 txanda librean. Gabirondo eta Irazustabarrena, Beñat eta Urtzi Telleriaren aurka.
17:00 Xoxokako II. Giza proba: auzoko gazteak elkarren aurka.
20:30 Bertso afaria plazan: Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso.
01:00 Erromeria: Emengattun.
Egun osoan zehar

LARUNBATA 13

URNIETA Xoxokako jaiak

11:00 Hamaitakakoa, bertso saioa.
11:00 Puzgarriak haurrentzat.
16:00 Mus txapelketa azkarra Xoxokako eskolan. Izen-ematea 15:00etan.
16:00 Puzgarriak haurrentzat.
17:00 Gorriti show, txokolate jana.
20:30 Betizu jatea Xoxokako plazan. Ondoren, Bakean dagoenari bakean utzi bakarrikzeta saioa.
01:00 Gaupasa: Gabenara.
03:00 DJ Altzibar Xoxokako eskolan.
Egun osoan zehar

IGANDEA 14

URNIETA Xoxokako jaiak

12:30 Meza. Egape dantza taldea.
17:30 Herri kirol lehiaketa auzoko gazteen artean.
18:00 Sagardo dastaketa: Oianume, Setien, Eula, Elutxeta, Otsua-Enea eta Elorribi.
20:30 Jaien amaiera.
Egun osoan zehar



Sustrai Colina, Alaia Martin, Amets Arzallus, Jon Maia eta Aitor Mendiluze kantuan arituko dira Andoingo Basteron, ostegun honetan 20:00tan hasita.

ANDOAIN Bertso saioa Basteron

Agifes buru osasun arazoa duten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarteak bertso saioa antolatu du Buru Osasunaren Nazioarteko Egunaren harira. 'Berdingabea zara' sentsibilizazio kanpainaren baitan antolatutako ekimena da.
Urriak 11, osteguna. 20:00, Bastero. 7 euro.

ASTELEHENA 15

URNIETA Ludoteka

Ate irekiera jardunaldiak urriaren 15etik 18ra. Izena emateko azken eguna: urriak 25.
Urriaren 15etik 18ra. Arantzubi.

URNIETA Kiroldegia

Jarduera fisikoetan eta kirol mailakoetan aritzeko lan poltsa deitu du Udalak. Oinarriak: urnieta.eus.
Azken eguna, urriaren 15a

OSTIRALA 19

ANDOAIN Lehiaketa

Guitar Hero lehiaketa urriaren 26an.
Prestaketa saioa, Gazte Lokala.

URNIETA Antzerkia

'Maita(k)jale borroka' eta 'Cronopia Xpress' antzerki laburrak.
19:30, Sarobe. Dohainik.

LARUNBATA 20

ANDOAIN Kontzertua

Madeleine, Grande days.
19:00, Sarobe. Dohainik.

ANDOAIN Dantza

Martin Zalakain, Argiaren eskutik.
20:00, Bastero. 3 euro.

IGANDEA 21

ANDOAIN Haur ikuskizuna

'Kontu kantari: mendian ibiltari', txoxongiloekin egindako kontzertua.
17:00, Bastero. 4 euro.

ANDOAIN Bisitaldi gidatua

Ondarearen Europako eguna. Andoingo kale eta plazak: emakumeen emaria ezkutuan. Izen-ematea: 943 303 540. 09:30, Berrozpe etxea.

URNIETA Bisitaldi gidatua

Ondarearen Europako eguna. Emakumea gure Cavaillé-Coll organoaren interpretari, erakusle eta zaindari. Izen-ematea: 943 00 80 00. 19:00, Urnietako eliza.

ANDOAIN Irteera

Urriaren 27an Sendavivara irteera antolatu du Gazte Lokalak. Urriaren 21ean amaitzen da izena emateko epea. Prezioa: 20 euro.
Izena emateko azken eguna.

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

Yucatán


Larunbata, 13:
19:30; 22:00.
Igandea, 14:
19:30.
Astelehena, 15:
19:30; 22:00.

Vaya bichos

Larunbata, 13:
17:00.
Igandea, 14:
17:00.

El viaje de Nisha

Igandea, 21:
19:30.
Astelehena, 22:
19:30; 22:00.



SAROBE

Ferdinand

Igandea, 14:
17:00.

Coco

Igandea, 21:
17:00.

Errementari
Astzk, 31: 17:00.

SINOPSIK



Yucatán

Zuz.: Daniel Monzón. **Herr.:** Espainia (2018). **Iraupena:** 130 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Diruak burua galtzen duenean...

Lucas eta Clayderman itsas bidaian doazen turistak engainatzen aritzen dira, baina

jada ez dute batera lan egiten. Ustekabez topatutako dirutzak, bidaia dueluan bihurtuko du.

Vaya bichos

Zuz.: Arnaud Bouron, Antoon Krings. **Herr.:** Frantzia (2017). **Aktoreak:** Kev Adams, Ryan Nicolls... **Iraupena:** 95 min.

Erreginaren tronua lortu nahian

Intsektuen herrixka hankaz gora geratzen da Apolloren etorrerarekin. Izan ere, Wendy erreginaren lehengusinarekin tranpan eroriko da; Wendy-k

erreginaren tronua nahi du. Apolloren zeregina erregina erreskatatzea izango da, bidean lagunduko dioten lagunekin batera.

Ferdinand

Zuzendaria: Carlos Saldanha. **Herrialdea:** AEB (2017). **Estiloa:** Animazioa, komedia. **Sailkapena:** Haurrak. **Iraupena:** 106 min.

Bihotz oneko animalia indartsua

Bihotz izugarri oneko zezen baten istorioa da. Piztia arriskutsutzat hartuta, harrapatu eta etxetik

urrunduko dute. Familiarengana itzultzeko abentura izugarria biziko du beste kide batzuekin batera.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Eñaut
Eñautek 13 urte beteko ditu urriaren 28an. Ondo pasa etxeko guztien partetik. Muxu potoloak.



ANDOAIN Irene
Urriaren 13an 9 urte beteko ditu. Egun polita izan! Muxuak etxeko partetik.



ANDOAIN Ander
Urriaren 12an 11 urte beteko ditu. Jarrai ezazu txintxo eta jator izaten. Muxuak etxeko partetik.



ANDOAIN Ainhoa
Udazkenarekin batera, gure etxeko larrosak 25 urte bete ditu, asko maite zaitugu.



ANDOAIN Irati
Datorren urriaren 19an 5 urte beteko ditu! Zorionak eta asko disfrutatu! Etxekoak.



ANDOAIN Beñat
Datorren urriaren 13an, 16 urte! Egun ederra opa dizugu, segi gozatsen! Etxekoak.



URNIETA Ibai
Urriaren 14an Ibaik 11 urte beteko ditu. Olaia izebak urriaren 12an. Zorionak bio! Etxekoak.

MERKATU TXIKIA

LANA

Gazte euskalduna arratsalde haurrak zaindu edo partikularrak emateko prest. **630 243 850.**

AUTOKARABANA SALGAI

Adriatik 680SK. 73.000 km. 2800 motorra, 145 CV. Oso ondo zaindua. **688 610 809** (Ainhoa).

IRAGAR ZAITEZ

Dohainik. diseinua@aiurri.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 13 eta igandea 14 ZATARAIN: Elizondo, 6. 943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 13 eta igandea 14 TANCO: Idiazabal, 39. 943 550 942. Urnieta. Gaez, bi herrietan: Castilla. 943 552 941. Hernani.

Euskaraldia martxan jartzeko egitasmoa lan munduan

DanobatGroup kooperatiba taldea egitasmoan murgildu da. Tartean da Latz enpresa andoaindarra



Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Euskaraldia ekimenari ekarpena egin nahi izan diote Danob-

atGroup kooperatiba taldean. Tartean da Gudarien etorbidean egoitza duen Latz kooperatiba.

Urriko lehen astea entsegu modukoa izan da

Urriko lehen bost egunetan izena emateko aukera zabaldu zuten. Kooperatibak ohar bidez zabaldukoaren arabera, langilegoaren ia erdiak ekimenarekin bat egin du: “493 lankideek Ahobizi edo Belarriprest rolag aukeratu dituzte. Bakoitzak hartu duen konpromisoaren arabera jokatu du bost egun horietan, laneko testuinguruan ohikoak diren egoera guztietan. Guztira 1000 langile inguru dira taldean eta Euskaraldian izena eman duten 493 lagunetatik 395k Ahobizi izatea aukeratu dute eta 78k Belarriprest”.

Prestaketa-lanetan 48 lankidek parte hartu dute, eta ondoren eragile gisara aritu dira langileen artean dinamikaren zabal-kundea egiten.

Kooperatiba taldean pozarren daude egun hauetako esperientziarekin: “Oso positiboa izan da, elkarren arteko hizkuntza ohiturak aldatzea posible dela ikusi baita. Euskarazko elkarriketa gehiago entzuteaz gain, elkarriketa elebidunak ere uste baino naturalago gertatu baitira”.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro

"Gerrateko ibilerak" Iñaki Alkain - Antonio Zavala
Liburua

Salgai: 10€

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko egoitza
Aiurriko erredakzio bulegoa



Alkategaia aukeratzeko prozesua zabalik du EH Bilduk

Andoaingo EH Bildu alkategaia aukeratzeko prozesuan murgilduko da hurrengo asteetan. Urriaren 15etik 28ra proposamenak aurkezteko epea zabalduko dute, horretarako bi bide eskainiz: elkarrekin.ehbildu.eus webgunea edota bilduandoain@andoain.eus posta elektronikoa.

Azken bi agintaldietan Carre izan da EH Bildu koaliziooko zerrendaburu eta alkate. Baina ez errepikatzea erabaki du.

Andoaingo hondakinen bilketa datuekin kezka agertu du Ipar Haizeak

Andoaingo Ipar Haizea elkarteak herriko hondakinen sailkapen kopuru baxuekin kezka azaldu du, egungo sistema agortuta dagoela adieraztearekin batera: "Andoaingo datuak hobetzea ezinbestekoa da. Uztailean hondakinen %40,28 gaika bildu genuen, eta abuztuan %44,27. Datu hauek erakusten dute egun dugu bilketa sistema agortuta dagoela, eta errefusa murrizteko lehenbailehen neurriak hartu beharko genituzkeela.

2018ko orain arteko batz bestekoa, soilik %44,76koa da. Datu hauek alarma handiagoa sortzen dute Tolosaldeko Mankomunitateko gainontzeko udalerriekin alderatzen ditugunean, non Andoain den gaikako bilketa tasa baxuena duena, alde handiz gainera".

Herri ekimenak aipagai dituen datuak ikusgai daude tolosaldekomankomunitatea.eus gunean.

AZKENA



Gipuzkoa osoko Izartxo aisialdi taldeko kideak Andoainen elkartu ziren larunbatean, bi urtean behin egiten duten topaketan. AIURRI

Izartxo aisialdi taldeen topaketa Andoainen

Gipuzkoa osotik bostehun gaztetxo hurbildu ziren Andoainera, Izartxo aisialdi taldeen topaketan parte hartzera. La Salle Berrozpe ikastetxean eta herrigunean zehar gaztetxoen ospakizunaren oihartzuna hedatu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Igandekoa ez bezala, larunbatekoa egun eguzkitsua izan zen. Eta eguzkipean, Andoaingo kale eta plazatan ehunka izartxo nabarmendu ziren. Eguraldi on

horrekin dir-dir berezia egiten ari ziren Izartxo aisialdi taldeko kideak, Gipuzkoa osotik etorrita. Bostehun gaztetxo eta begirale ziren denera, hainbat herri ezberdinetakoak.

Kopuru horietara iritsita, ezin haien presentzia oharkabean igaro. San Martin elizan agurra eta ospakizuna egin ondoren, Goikoplazan taldeko argazki jendetsua atera zuten.

Ehunka gaztetxoren topagunea

La Salle Berrozpe ikastetxean egin zuten bilkurara Gipuzkoa osoko ikasleak hurbildu ziren. Besteak beste, Donostia, Irun, Eibar, Zumarraga, Beasain eta Zarautz herrietatik. Guztiek ere Izartxo izena dute, eta bi urtez behin topaketak antolatzen dituzte. Aurtengoan Andoainen egokitu zen, eta antolatzaileen arabera 9 eta 12 urte bitarteko 500 lagun hurbildu ziren. Ospakizuna antolatzea, beraz, ardura handia izan da Andoaingo Izartxorentzat.

Egun osoko ospakizuna, Andoain ardatz hartuta

Proba jolasa, bazkaria, apar festa, tailerrak, puzgarriak,... bederatzi eta hamabi urte bitarteko haurrei egun ederra igarotzeko moduko plana antolatu zieten.

Adiskidantzezko egun ederra igarota, Izartxo izena duen aisialdi talde bakoitzak bere herrian egingo ditu ia jardura guztiak. Bakoitza bere aldetik ibili arren, La Salle ikastetxeko aisialdi taldeak elkar loturik daude. Bi urtez behin "Topaketa" izeneko lagunarteko bilkurak egiten dituzte eta, aurtengoan, Andoain izan da haien guztien topagunea.



La 2.ª Guerra Carlista en Gipuzkoa (1872-1876)

Liburuaren aurkezpen ekitaldia

Urriak 24, asteazkena. 19:00

Andoaingo Bastero Kulturgunea

Hitzaldia amaituta liburua bertan erosi ahal izango duzu, 25€-ren truke (liburu-dendetan 30€).

Hizlari, egile:

J. Antonio Recondo Bravo

Aurkezpena:

Francisco Etxeberria

